

LIBRECON

powered by CEBIT

Librecon eta CEBIT topaketek bat egin dute Bizkaia teknologia librean alorreko Europa hegoaldeko plaza nagusi bihurtzeko

- *Bi ekitaldi horiek antolatzen dituzten ESLE eta Deutsche Messe erakundeek hitzarmena izenpetu dute 2018ko eta 2020ko apirilerako Librecon Powered by CEBIT jakintza eta teknologia irekiaren foroa antolatzeko.*
- *Librecon topaketaren edizio berri horrek jauzi kualitatiboa ekarriko du 2014an eta 2016an egindakoekin alderatuta, eta bultzada handia emango dio open source teknologien euskal sektoreak nazioartean duen posizionamenduari.*
- *CEBIT mundu-mailako erreferentziatzko foro nagusia da informazioaren teknologien alorrean, eta 200.000 bisitaritik gora erakartzen ditu urtero Hannover hirira.*
- *Gaur aurkeztu dute hitzarmena ESLE eta Deutsche Messe erakundeetako arduradunek, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren laguntzaz.*

(Bilbo, 2017ko azaroaren 30a).- Bilbok eta Bizkaiak distira berezia hartuko dute teknologia librean eta jakintza irekiaren unibertsoan, 2018ko azarorako "Librecon powered by CEBIT" ekitaldia antolatuko baita. Foro horren xedea da teknologia librean alorreko Europa hegoaldeko topaketa nagusi bihurtzea.

Nazioarteko ekitaldi handi hori bi erakunde hauek batuta sortu da: batetik, ESLE, Euskadiko Teknologia Libreko eta Ezagutza Irekiko Enpresen Elkarteak, Bilboko Librecon kongresuaren 2014ko eta 2016ko edizioen sustatzailea; eta, bestetik, CEBIT, berrikuntza teknologikoaren alorreko munduko azoka nagusitzat jotzen dena. Azken hori Hannover hirian (Alemania) egiten da, kongresu eta azoka profesionalak antolatzen dituen Deutsche Messe erakunde alemaniar entzutetsuaren gidaritzapean.

CEBIT eta ESLE erakundeek sinatutako hitzarmenak jasotzen dituen bi ekitaldietako lehenengoa 2018ko azaroaren 21ean eta 22an egingo da Euskalduna Jauregian, eta, bigarrena, 2020ko azaroan.

Gaur bertan izenpetu dute hitzarmena ekitaldiaren beraren egoitza izango den toki berean. Eneko Astigarraga ESLEko presidentea eta Marius Felzmann CEBITeko presidenteordeak sinatu dute agiria. Ekitaldian egon dira, baita ere, David Olmos, ASOLIFeko presidentea, Ibone Bengoetxea, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatua, Nora Sarasola Bilbao Ekintzako Zuzendari Nagusia, eta Aitor Cobanera, SPRI agentziako Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendaria, lau erakunde horiek babesa eskaini baitiote hitzarmenari.

Zentzu horretan, "Librecon powered by CEBIT" topaketaren 2018ko eta 2020ko edizioak sortzeko adostutako akordio horren egitekoa da Libreconen aurreko edizioen nazioartekotasuna sustatzea, eta teknologia librean alorrean erreferente izango den

LIBRECON

powered by CEBIT

interesgune bihurtzea Bilbo. Aldi berean, lankidetzarako zubi berriak eraiki nahi dira Deutsche Messe erakundearen eta ESLE Euskadiko Software Libreko Enpresen Elkartearen artean; lehenak 130 azoka baino gehiago antolatzen ditu urtean hainbat lanbide-jardueratan, eta bigarrena teknologia libreetan espezializatutako 40 enpresa baino gehiagok osatzen dute.

2017ko azken edizioan, CEBIT jaialdi teknologikoak 70 herrialdetako nazioarteko parte-hartzaileak izan zituen; 200.000 bisitari eta 3.000 erakustoki bildu zituen, eta 3.500 kazetari akreditatu izan ziren han.

Beste alde batetik, Libreconen bi edizio egin dira Bilbon, eta 1.500 bisitari hurbildu ziren 1.200 m²-ko erakusketa-gunea ezagutzera. Teknologia libreen alorrean nazioartean oso ezagunak diren hizlariak ekarri ditu foro horrek, hala nola Jim Whitehurst, Red Hat enpresako presidentea, Chema Alonso, Telefónica enpresako CDO, eta Audry Tang, Taiwango Arlo Digitaleko ministroa.

Librecon eta CEBIT; xede bera.

2018ko azaroaren 21erako eta 22rako aurreikusitako “Librecon powered by CEBIT” edizioak jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa eman nahi du, aurreko bi edizioetan 1.500 profesional bildu zituela kontuan hartuta. Topaketak erakustoki erraldoi bihurtu nahi du, teknologia libreen esparruan egin diren azken aurrerapenak erakusteko eta haiei buruzko informazioa trukatzeko aukerak emateko, eta agerian uzteko horrek guztiak irtenbide berritzaileak eta negozio-eredu berriak sortzeko abantaila apartak dakartzala.

Gainera, nazioarteko adituentzako topaleku eta trukerako foro ere izan nahi du, jakintza demokratizatzen laguntzeko, eta teknologia irekien kultura sustatzeko ekoizpen-kate osoan.

“Teknologia digitalak indarrez sartu dira, eta horrek guztiz eraldatu ditu harremanak izateko, bidaiatzeko, aisialdiaz gozatzeko eta kontsumitzeko moduak. Baina eraldaketa hori beste esparru batzuetara ere iritsi da, hala nola industriara, finantza-zerbitzuetara edo baliabide publikoen kudeaketara. Gure nahia da *Librecon powered by CEBIT* iraultza horren konplize izatea, eta *open source* teknologietan oinarritutako negozio-eredu berriak sortzen laguntzea”, adierazi du Eneko Astigarragak, ESLEko presidentea.

Marius Felzmann CEBITeko presidenteordeak, bere aldetik, adierazi du hitzarmena “teknologia irekiei eta software libreak Bizkaiko finantza zerbitzuei eta erakundeei eskaintzen dizkien garapen ekonomikorako aukerei buruzko jakintza sustatzen jarraitzeko aukera aparta” dela.

“Librecon powered by CEBIT” 2018 edizioak zenbait esparru landuko ditu, hala nola eraldaketa digitala, zibersegurtasuna eta gauzen Internet (IoT), eta horiek erakunde publikoetan, finantza-zerbitzuetan eta industria-sektorean zer erabilera dituzten aztertuko du.

Ekitaldian ongi bereizitako zenbait gune egongo dira, era askotako jarduerak gauzatu ahal izateko, besteak beste: hitzaldiak, produktuen erakustaldiak, lantegi espezializatuak, erakusketak eta *networking*-a.

LIBRECON

powered by CEBIT

ASOLIFek (Software Libreko Enpresen Espainiako Federazioa) sortu zuen Librecon 2012an, eta urtero egin izan da Espainiako zenbait hiritan, Zaragozan, Malagan eta Santiagon adibidez. Bilbon bi edizio egin dira orain arte, 2014koa eta 2016koa, ESLEekin lankidetzan. Ildo horretatik, CEBITekin sinatutako hitzarmenak bultzada esanguratsua emango dio topaketa hau Europa hegoaldeko teknologia irekien jaialdi nagusietako bat izan dadin.

ESLE

Euskadiko Teknologia Libreko eta Ezagutza Irekiko Enpresen Elkarte (ESLE), 2005ean eratu zena, irabazi-asmorik gabeko erakundea da, software librean eta *open source* tresna informatikoetan oinarritzen diren euskal enpresek sustatutakoa.

Elkarteko bazkideek era askotako jarduerak gauzaten dituzte, softwarea garatu, amaierako zerbitzuak eman, eta abar, eta guztien konpromisoa da teknologia librean erabileraren bultzatzea eta sustatzea herritarren artean, eta informazioaren gizarte berriak sorrarazten duen jakintza-behar gero eta handiagoari erantzutea.

Deutsche Messe

1947an sortua, Deutsche Messe azoka eta kongresu profesionalak antolatzen dituen nazioarteko erakunde nagusietako bat da. Hark kudeatzen du Hannover hiriko erakustazoka, Hannover Fairground, munduko azoka-gune nagusizat jotzen dena; 500.000 metro koadroko azalera du, hots, Barakaldoko BECen bikoitza.

Enpresa honek 130 azokatik gora antolatzen ditu urtean, 3,5 bisitari eta 40.000 erakustoki biltzen dituztenak guztira.

Enpresa honek kudeatzen ditu, adibidez, Hannoverreko EMO makina-erremintaren eta fabrikazio industrialaren azoka, CEMAT logistika-azoka eta, nola ez, CEBIT digitalizazioaren eta berrikuntzaren Europako jaialdi profesionala.

Informazio gehiago

Marta Berard

press@librecon.io
606 14 32 50